



JANGELAKO GIDA

Jangelen ezaugarriak, funtzionamendua eta bestelako datuak.



SALBATORE MITXELENA IKASTOLAKO

ZERBITZUEN AZPIBATZORDEA



AURKIBIDEA

AZKEN PORTUKO JANGELA (HH2)

- ◆ Ezaugarri nagusiak..... 2.orr.
- ◆ Egokitzapena..... 2.orr.
- ◆ Ordutegia..... 3.orr.
- ◆ Giroa.....3.orr.
- ◆ Bazkaltzeko momenturako prestaketa 3.orr.
- ◆ Bazkariaren momentua.....3.orr.
- ◆ Gure jarrera.....4.orr.
- ◆ Familiaren eta Ikastolaren ardurak eta jarrerak.....4.orr.

IÑURRITZAKO JANGELA (HH3 – DBH4)

- ◆ Ezaugarri nagusiak.....5. orr.
- ◆ Menu bereziak.....5. orr.
- ◆ Egun bat jantokian.....6.orr.
- ◆ Jangelako arau orokorrak 9.orr.
- ◆ Liskarren bideraketa10.orr.
- ◆ Bazkalosteko eremuak.....11.orr.
- ◆ Begiraleak, koordinatzailea eta azpibatzerdea.....12. orr
- ◆ Jangelako hiruhileko txostena.....14.orr.



AZKEN PORTUKO JANGELA (HH2 – HH 3)

◆ EZAUGARRI NAGUSIAK

Azken Portuko jangela ikastolak berak kudeatzen du, baina janarien sukaldatzearen arduraduna Etxeko Janak- Aibak catering-enpresa da. Enpresa honek diseinatzen ditu menuak, jakiak erosten ditu eta bere egoitzan kozinatzen ditu. Goizean bazkariak prestatuta ekartzen ditu termotan.

Tutoreen esku dago bazkal orduko momentua.

Hilabeteko menuak gurasoei helarazten zaizkie afariak prestatzeko garaian kontuan har ditzaten. Hiru hileroko menuak eskuragarri daude idazkaritzan edota www.zarauzkoikastola.eus gure web orrian.

Funtzionamendu orokorraren mailan, **Zerbitzuetako Azpibatzordeak** egiten du jangelaren jarraipena. Ikastolako azpibatzorde guztiak bezala, zerbitzuen azpibatzordea ikasleen gurasoei **irekia** dago guztion artean kudeaketa egoki bat aurrera eraman dezagun.

◆ EGOKITZAPENA

Egokitze orokorra kontuan izanik, jangela ikastolako beste espazio bat bezala tratatuko da. Horretarako, hasieratik, egunero bertatik pasako gara. Taldeak onartzen duen momentutik jarduera esanguratsuak proposatuko dira espazio horretan. Adibidez: bertan dagoen materialarekin jolastea, sukaldeko tresneria non dagoen ikustea eta zertarako erabiliko ditugun aipatzea, txokolatea eta ogia bertan jatea, hamaiketako egitea, laranja zukua edatea, eta abar. Beti ere talde osoari egindako proposamenak izango dira eta denbora laburrez, poliki-poliki espazio berri hau ere **bere** egin arte.

Egokitzapena bukatu ondoren, bertan bazkaltzea proposatuko dugu, eta bazkalondoren jasoko dute gurasoek haurra.



◆ ORDUTEGIA

Bazkaltzeko ordutegia 11:45etik – 12:30era da. Ondoren, eskuak eta aurpegia garbitu, aldatu eta 13:00 etxera edo siestara joateko prest egongo dira haurrak.

◆ GIROA

Txukuna eta lasaia izaten ahaleginak egingo dira (musika goxo bat fondo bezala ere jar daiteke). Azken finean, haurra gustura eta seguru sentituko den espazio bat izan behar du jangelak.

◆ BAZKALTZEKO MOMENTURAKO PRESTAKETA

Kaleko buelta egin ondoren, 11:30 inguruan, komunera joango gara bakoitzaren beharrak bideratzeko, eskuak garbituko ditugu ura eta xaboiarekin eta mahaian eseriko gara. Bertan lerre-zapiak jantziko ditugu. Egun batzuk igarotakoan, beraiei proposatuko diegu lerre-zapiak banatzea. Egun bakoitzean haur batek, beti ere nahi baldin badute.

◆ BAZKARIAREN MOMENTUA

Bazkaltzea (jatea) behar bat bezala hartu eta sentitu behar du haurrak. Aldi berean, erritua bilakatuko denez, ekintza honekin lotutako olerki edo kanta bat proposatuko dugu. Gure kasuan, *Goazen denok batera* kantatzen dugu lerre-zapiak jantzi dituztenean eta guk platerak eta koilarak jartzen ditugun bitartean. Kanta bukatzean “on egin” esaten diegu hurrei eta janaria zerbitzatzen hasten gara. Bakoitzari nahi duen kantitatea aterako zaio platerera, zenbat nahi duen galdetuz: *asko, gutxi, zenbat burrunzalka nahi dituzu, 1, 2...?* Nahi ez dutenei probatzeko bakarrik aterako diegu eta, patxada handiarekin, horretara gonbidatuko ditugu, probatzera, eta bere ahalegina txalotuko dugu eta hurrengo batean gehiago jango duela adierazi. Hezitzailea ere beraiekin eseriko da bazkaltzera.

Haur guztientzat erritmo berdintsua bultzatuko dugu, azkar jaten duenari lasai jateko esanez, presarik ez dagoela eta denok bukatu arte ez dela bigarren platera aterako, lagunei itxarongo diegula, eta mantsoago jaten dutenei pixka bat lagunduz. Platerak erretiratu eta mahaia garbituko dugu. Beste platerak eta sardexkak jarriko ditugu eta lehengoarekin egin dugun bezala jokatu dugu: *zenbat kroketa nahi dituzu, zenbat haragi zati, arrain zati...? Probatuko duzu?...* Letxuga edo piperrak ere, daudenean, eskainiko dizkiegu. Sarritan ez dutela nahi esango dute, baina pittin bat plateran jarriko diegu haur guztiei eta nahi ez badute bertan uzteko esan edo, agian, geroxeago probatu nahiko duela.

Bigarren platera amaitzean daudenean ogia eskainiko diegu eta platerak jasotzen ari garenean, lerre-zapiekin bezala, edalontziak banatzea proposatuko diegu hurrei, txandaka. Guk aterako diegu ura eta postrea zerbitzatu aurretik edalontziak jasoko ditugu eta mahaia garbituko.



Bukatzean, bakoitzak bere jogurt potea eta koilaratxoa esandako tokira eramango ditu eta lerre-zapiak ere horretarako jarriko den kaxara. (mantalak erabiltzen badira bakoitzak bere gakoan zintzilikatuko du).

Bazkaltzeko unea oso une egokia da autonomia pertsonala, hizkuntza eta motrizitatea estimulatzeko:

- Haurrak berak bakarrik jango du, guk momentu zehatz batzuetan lagunduko diogu: azken kondarrak biltzen, esaterako.
- Momentuan gertatzen denaz edo goizeko saioan bizitakoaz hitz egin dezakegu. Azken batean, giro erlaxatuan **komunikatzeko** une egokia izan daiteke bazkalordua.
- Jana, berriz, ez dugu bazkaltzeko garaian gai bakarra izango; puntualki bakarrik eta aparteko garrantzirik eman gabe.

◆ **GURE JARRERA**

Lasaia, patxada handikoa, haurrari urduritasunik transmititu gabe. Guk jarrera lasai eta patxadatsua badugu hori transmitituko diogu haurrari eta hau seguru sentitzea nahi badugu ezinbestekoa da jarrera hori.

Haurraren nahiak errespetatuz baina aldi berean aurrera pausoak ematera animatu behar ditugu.

Kontuan izan behar dugu haur bakoitzak bere ohiturak dituela eta horiek aldatzea komeni bada, mantso eta goxo jokatu beharko dugula. Ikasturte hasieran gurasoekin egiten den bakarkako bileran, gai honen inguruan informazio trukaketa egotea ezinbestekoa da, hezitzaileok jakinaren gainean egon behar baitugu.

◆ **FAMILIAREN ETA IKASTOLAREN ARDURAK ETA JARRERAK**

Jangelaren planteamendua bi aldeek adostu, onartu eta bultzatu behar badugu ere, ondorengoak kontuan izan behar ditugu:

- Haurrari ez diogu esaldi ezkorrik esan behar. Adibidez: “ikastolan ikasiko duzu jaten”.
- Janariarekiko antsietatearen inguruan zer egin behar dugun.
- Jan nahi ez duenean nola jokatu behar dugun.
- Elikagaiekin oso selektiboa bada zer egin dezakegun.
- Jateko garaia ez da jolas garaia. Haurra ez dugu ez engainatu, ez beste gauza batzuekin distraitu behar jan dezan.
- Etxeko edo ikastolako erreferentziak, ereduak, duen garrantzia.
- Erabiliko den tresneria: koilara, sardexka, plater, edalontzi...



Hasieran ez diogu garrantzia emango dena jateari, hori pixkanaka lortuko dugu haurra animatuz. Hasieran garrantzia duena haurra seguru eta lasai sentitzea da. Lasai eta seguru dagoen haurrak jan egingo du eta zerbait ez bazaio gustatzen adierazi egingo du. Hortik aurrera gure lana haur hori janari berriak probatzera animatzea izango da. Seguru sentitzen den haur batekin askoz errazagoa izango da pauso hori ematea.

IÑURRITZAKO JANGELA (HH3 – DBH4)

Iñurritzako jangela ikastolak berak kudeatzen du, hau da **jangela autogestionatua** da. Ikastolaren esku daude menuen diseinua, bazkarien prestaketa eta jakien erostea. Jangela autogestionatuak **elikadura-subiranotasunaren printzipioak** jarraitzen ditu, produktuak bertako baserritarrei, ekoizleei eta dendetan erositaz. Jakiak, ahal den neurrian, **ekologikoak** dira.

Bazkarietara dagokionez, dietista baten aholkupean osatzen dira hilabeteko menuak eta gurasoei bazkari menu bakoitzari dagozkion gomendioak helarazten zaizkie afariak prestatzeko garaietan kontuan har ditzaten. Horrela, gure ikasleek eguneko dieta osatu eta osasungarriak dituzte. Menua eskuragarri dago www.zarauzkoikastola.eus gure web orrian.

Funtzionamendu orokorraren mailan, **Zerbitzuetako Azpibatzordeak** egiten du jangelaren jarraipena. Ikastolako azpibatzorde guztiak bezala, zerbitzuen azpibatzordea ikasleen gurasoei irekia da, guztion artean kudeaketa egoki bat aurrera eraman dezagun.

Ikasturte bakoitzaren amaieran, plangintza egoki bat egiteko asmoz, guraso guztiei hurrengo ikasturterako jangelaren beharra izango duten ala ez galdetzen zaie idatziz, eta behar izanez gero, zenbat eta zein egunetan. Galdeketa hau, Aste Santu inguruan bidaltzen da postaz etxeetara. **Kasu bereziren** bat duenak (behar-beharrezko eta aurreikusitako ezinezko egoerak), Idazkaritzan eman beharko du bere eskaeraren berri Zerbitzu Azpibatzordeak aztertu eta baloratu dezan.

MENU BEREZIAK

a) Menuen osaera bera izango da jankide guztientzat, b) puntuak zehaztutako kasuan izan ezik.

b) Menu desberdinak onartuko dira honako kasu hauetan:



1. Intolerantziak, alergiak eta gaixotasuna.

Ikastolak menu bereziak egin ditzake, baina ikaslearen gurasoek edo tutoreek, honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- Espezialistaren mediku txosten ofiziala.
- Ezbeharrez hartuz gero jarduteko protokoloa.

Ikastolak ezin izango du menu bereziak eman espezialistak elikagai jakin batekiko gaixotasuna, alergia edo jasanezintasuna modu seguruan zehazten ez duen arte. Alergia edo jasanezintasun hori berretsi arte elikagai bat modu progresiboan jateko prozesuaren ikuskapena eskola-jantokiaren esparruaz kanpo egingo da.

Antolamendu baldintzak edo sukaldeko instalazioak direla eta, ezin direnean menu bereziak egiteko eskatzen diren bermeak bete, alergia, intolerantzia edota gaixotasunaren ezaugarriak osasunarentzat arriskutsuak direlako eta mediku espezialistaren txostena kontutan hartuta, ikaslea jantokian ez onartzeko aukera egongo da egoera horrek bere horretan jarraitzen duen bitartean.

EGUN BAT JANTOKIAN

BAZKAL AURRETIK

◆ JANGELA TXIKIA (HH3, HH4 eta HH 5)

- n **12:00:** Hiru begiraleak geletara joango dira haurren bila (aurretik komuna paperez hornitzen da). Irakasleak agurtu eta haurrekin jantokira abiatuko dira. Komuneko eginbeharretan begirale bat egongo da (pixa, eskuak garbitu...). Beste biak berokiak kentzen lagunduko die komunera joan aurretik. Komunetik irten ondoren, mantalak jarriko dituzte eta jangela txikira sartuko dira.
- n Esertzen direnean, ura beteko zaie edalontzian eta ogi zati bana emango zaie eskatzen doazen heinean.
- n **12:15:HH5eko ikasleak** jantokira joango dira portxetako eskaileretatik. Komunetik pasa, “mantalak jantzi” eta jangela txikira sartuko dira (txamarrak “eskuineko” esekitokietan jarriko dituzte).

◆ JANGELA HANDIA (LH eta DBH)

- n **12:30:LH 1, LH2, LH3 eta LH4koei** atek irekiko zaizkie. Hiru begiraleetako bat umeak komunetik pasa daitezten arduratuko da eta beste biak haurrek agurtuko dituzte jangela barruan eta zerbitzatzen hasiko dira. Komuneko lanetan astero begiraleak txandatuaz joango dira.
- § 12.30: LH5 eta DBHkoei jangelako atek irekiko zaizkie. Begiralea jangela barruan egongo da ikasleak bideratzen.



- **OHARRAK:**

- **HH3koekin egokitzapena** burutuko da ikasturte hasieran. Jangelako zerbitzuaren hasiera 2. aste azken 2 egunetan izango da eta jangelan jaten hasi baino hiru egun lehenago, Haur Hezkuntzako ikasleekin egongo diren begiraleak (hiru hasiera batean), egunero ordubete inguru egongo dira irakasleekin batera. Haurrak jangelara joango dira bisitan irakaslearekin batera. Espazioa ezagutu eta bertan egingo dutena azalduko die irakasleak. Gainera, beraien arduradun izango diren begiraleak bertan izango dira eta elkar ezagutzeko aukera izango dute, hamaiketako bertan eginez adibidez.

BAZKALORDUAN

- ◆ **JANTOKI OSOA (HH, LH eta DBH)**

- n Lehenengo platera zerbitzatu izaten dute kasu gehienetan. Aldiz, purea edo sopa dutenetan pitxarretik zerbitzatu da eta haurrari galdetzen zaio zenbat nahi duen.
- n LHkoek eta DBHkoek arduradun lanak (pertsona bat edo bi) beteko dituzte (platerak pilatu, sukaldara eraman...). Dena dela, begiraleek ere laguntzen diete.
- n HHkoei mahai-tresnak erabiltzen lagundu, musua garbitzeko gogorarazi, e.a. Aiztoa LH eta DBHkoek bakarrik izango dute.
- n Jantokiko giroa atsegina eta ahalik eta lasaiena izan dadin, elkarrizketa bideratuko da garrasiak ekidinez (bai begiraleen artean eta baita haurrak isilarazteko orduan). Estrategiak taldekideen artean adostuko dira.
- § Liskarren bat sortuz gero, momentuan eta bertan konponduko da arazoa hizlaria eta entzule teknika erabiliaz (ERANSKINA: LISKARREN BIDERAKETA 10.or). Bestelako arazoak konpontzeko ere erabil daiteke.
- n Gurasoekiko harremanak zaindu. Jangelako Koordinatzailearekin bilera bat egin nahi bada, aurretik ordua zehaztea komeni da. Haurrak jangelatik jasotzeko, **beti ere, alde zuzenetik Idazkaritzan etorreraren berri jakinarazi behar da.** Jasotzeko orduak 13:20etan edota 14:30etan izaten saiatu beharko da, eta **gurasoek ezingo dute inola ere jangela barrura sartu.** Begirale edo koordinatzaileari adierazi beharko zaio (besterik ezean atetik) eta beraiek aterako dute ikaslea jangela barrutik.



- n Eguneko jarraipen orria (HHkoena) zerbitzua eman ondoren bete. Orri hau hamabost egunetara emango zaie hurrei, luzatu nahi duenak begiraleari edo koordinatzaileari adierazi beharko dio.

BAZKALOSTEAN

◆ JANTOKI OSOA (HH, LH ETA DBH)

- n Hortzak garbitzea. Nahi duenak aukera du hortz-ore eta eskuilako poltsatxoa komunean dagoen arasan gordetzeko.
- n HH3koak beren bi begiraleekin komunera joango dira. Eskuak eta hortzak garbitu eta sarreran eseriko dira denak bildu arte. HH 4koak bere begiralearekin geroxeago irtengo dira; baita jantokian geratu behar izan duen hiru urteko beste haurren bat balego.
- n HH5ekoek bukatu ondoren, bere begiralearekin irtengo dira. LHkoak beste bi begiraleekin. Ateratzeko momentuan, LHko begirale bat atarian (portxetan) dagoen bitartean beste mahaietan daudenei irteera ematen joango da.
- n 14:00tatik aurrera jangela handian eta txikian ez da inor geratuko.
- n Adin tarte bakoitzak bere jolaserako edo egoteko eremu berezia izango du eta errespetatu beharrekoak izango dira eremu horiek (ikus Eremuen Eranskina).
- n DBHko gazteek ez dute zaintzapean egon beharrik, baina Ikastolako eremutik atera nahi izanez gero, gurasoek baimen sinatu behar dute.
- n 14:30ean haurrak geletara itzuliko dira. HHkoak bakoitza bere begiralearen laguntzaz. LHko begiraleak sarrera nagusian egongo dira.



JANGELAKO ARAU OROKORRAK

◆ GARBITASUNA

- n Bazkaldu aurretik eta ondoren eskuak garbitu
- n Janaria ez bota
- n Mahaiko tresnak ongi erabili.

◆ PORTAERA

- n Arduratsu jan
- n Baxu hitz egin
- n Ahoa itxita jan
- n Modu egoki eta lasaian egon mahaian.
- n Hitz desegokiak ez erabili
- n Begiraleak eta kideak errespetatu
- n Begiraleek esandakoa bete
- n Mahai bakoitzean, astero arduradunak izendatu
- n Bazkalorduan ezin da tresna teknologikorik erabili

◆ INGURUA

- n Komunak eta jolas-gelak zaindu
- n Eguerdian ezin da ikastolatik irten (DBHko ikasleek gurasoen baimenarekin izan ezik)



ERANSKINA: LISKARREN BIDERAKETA

- Begiraleak liskarrean parte hartu duten haurrak besteengandik baztertuko ditu modu lasaian, baina gertatu den lekutik urrundu gabe.
- Konfiantzaz eta goxo hitz egingo die liskarrean parte hartu duten haurrei. Hizkera egokia erabiliko du eta hizkera hau mantendu arazoa konpondu bitartean.
- Begiraleak bitartekari rola beteko du, ez da inoren alde azalduko, haurra ez du errudun sentiaraziko.
- Haurra gertatutakoaren berri ematen saiatuko da. Begiraleak denei emango die hitz egiteko aukera.
- Hitz egiten ari dena errespetuz entzungo dute, bai haurrak, bai begiraleak (hizlaria/entzulea).
- Begiraleak haurra bestearen lekuan jartzeko modua bilatuko du, zer sentitzen duen, gustura al dagoen, minduta, triste...(enpatia) plazaratzen saiatuko da.
- Begiraleak eztabaida sortzeko aukera emango die beraien arteko errespetua lehenetsiz, hau da, haurren arteko elkarrizketa bideratuko du inor konbentzitzen saiatu gabe, bakoitzak bere arazoak mahai gainean jarriko ditu.
- Haurrek arazoa zein izan den, ondorioak zeintzuk izan diren eta irtenbideak arazoituko dituzte begiralearen laguntzarekin.
- Arazoa amaitutzat emateko, liskarrean parte hartu duten haurren adostasuna eta barkamena bideratuko du begiraleak.
- Ahal den neurrian, hurrengo batean liskarrak ez sortzeko konpromisoa hartu beharko dute, egoera hauek saihesten saiatu beharko dute.
- Begiraleak haurren jarrera aldaketa eskertuko du eta konponbideari irteera nola eman dioten gogoraraziko die errefortzu moduan.
- Liskarrean parte hartu duten haurrak keinu baikor batean agurtuko ditu begiraleak (besarkada, muxua, bostekoa...)



BAZKAL OSTEKO EREMUAK

MAILAK	EREMUAK(1)	EREMUAK(2)
HH3	Psiko gelan deskantsua	Psiko gelan deskantsua
HH4	Portxetako goiko aldeko eremua (saskibaloiko kanastak). Portxeak eta portxe aurreko aldea	Jangela txikia (partxis, bideoa, pintatu, puzzle)
HH5		
LH1		
LH2	Idazkaritzaaurreko futbol zelaia. Idazkaritzako portxeak, saskibaloikantxak eta frotoia (baimenaeskaturata)	Gimnasioa + idazkaritzako portxea
LH3		
LH4		
LH5		
LH6		
DBH1		
DBH2		
DBH3		
DBH4		

n **EREMUAK (1):** Lehentasunezko gunea, batez ere eguraldi txarra ez denean.

n **EREMUAK (2):** Lehentasunezko gunean egon ezin denean (eguraldi txarra) ala nahi ez denean (DBH).



BEGIRALEAK, KOORDINATZAILEA ETA AZPIBATZORDEA

n **BEGIRALEAK**

<i>IKASMAILA</i>	<i>BEGIRALEA</i>	<i>LEKUA</i>	<i>SARRERA ORDUA</i>
HH 3 – HH 4 – HH 5	Amaia Manterola Amaia Garate Rosi Etxeberria Mila Askasibar Jasone Erkizia	JANGELA TXIKIA (MUSIKA GELA)	12:15
LH1 – LH 2 – LH3	Maialen Fernandez Olatz Unzueta Enara Blázquez	JANGELA HANDIA	12:30
LH4 – LH 5- LH6	Irati Txapartegi Onditz Alberdi	JANGELA HANDIA	12:30
DBH 1 – DBH 2- DBH 3 – DBH 4	Naiara Badiola	JANGELA HANDIA	12:45 (DBH)
SUKALDEA	Amaia Iraola Marijo Arias		

n **JANGELAKO KOORDINATZAILEA:**

NAIARA BADIOLA (640 603 136)

n **ZERBITZUEN AZPIBATZORDEA:**

- Julene Alcedo
- Ana Aristi
- Miriam Mendoza
- Amaia Iraola
- Bakarne Basurto
- Onditz Alberdi
- Iruñe Zubimendi
- Unai Lekuona

(Azpibatzerde kideen artean aldaketaren bat egon daiteke).

Posta elektronikoa: zarautz@ikastola.eus



◆ **KOORDINAZIORAKO HELBURUAK**

- Begirale taldearen dinamizazioa zaindu.
- Jangela heziketa gunen izan dadin bermatu.
- Komunikazioa eta harremanak sustatu.
- Jangelako heziketa gunearen antolaketa eta plangintza aurrera eraman.



2 0 1 1



SALBATORE MITXELENA IKASTOLA
 MARIA ETXE-TXIKI KALEA 14
 20800 ZARAUTZ



(943831752 (943833690 * zarautz@ikastola.eus www.zarauzkoikastola.eus

HIRUHILEROKO TXOSTENA

IKASLEA MAILA

	1. HIRUHILEKOA			2. HIRUHILEKOA			3. HIRUHILEKOA		
	1	2	3	1	2	3	1	2	3
BAZKARIA									
Denetik jaten du									
Jatordua eta jataria ganoraz onartzen ditu									
Mahai-tresnak ondo erabiltzen ditu									
Mahaian egoki egoten da									
Mahaiko arduradun lanak borondate onez betetzen ditu									
Garbia eta txukuna da									
HARREMANAK									
Lagunekiko harremanak onak dira									
Begiraleekiko harremanak onak dira									
Elkarbizitza arauak ezagutzen eta errespetatzen ditu									
Jantokiko arauak errespetatzen ditu									
Beste haur eta begiraleekin kolaboratzen du									
Laguntza eskatzeko eta emateko gaitasuna du									
ATSEDENALDIA									
Jolas-taldean integratzen da									
Jolas arauak onartzen ditu									
Bere atsedenaldia antolatuz ohi du									
Jolasteko materiala egoki erabiltzen du									
Liskarrak bere kabuz konpontzen saiatzen da									

OHARRAK

1. HIRUHILEKOA
2. HIRUHILEKOA
3. HIRUHILEKOA

1.- Bai (si)

2.-Ez (no)

3.- Jabetze prozesuan (En proceso de adquisición)